## HERTZAINAK

Isilik inola ez hobe abestu
gainera mundu zaharra musikaz deuseztu
abestu ta zaharra deuseztu
hau maite ez duenak bizitzerik ez du.
Kaixo lagun guztioi gu gara hertzainak
batzuk porraz berotzen dizkigute gainak
guk musikaz ustuko dizkiegu zainak
gaur kolokatu behar dugu edonola
gu mozkortzeko vodka horiek koka kola
edonola koka kola
zuek enporratzeko gure rokanrola.
Gurekin nahi baduzu izan neska fina
hobe txina batekin etorri bazina
mundua ez litzateke egongo hain zikina
neska fina etorri bazina
ta elkarrekin ohean izango bagina.
Txoriek zelaietan mokoka garia
gu kanutotarako nahiago maria
gaur mozkortu baino lehen presta afaria
hori duzu hertzainok nahi dugun saria.
Hertzainak jaio eta Hertzainak bukatu
gu isilitzeko mediorik ez du inork asmatu
geu hil baino lehen hobe da apaizak urkatu
aita santu gaixoa puzkarrez akatu.
Ta ohezalea dena gertura dadila
borrokarako prest balak eta fusila
ta inguruan ditugun neska mutil pila
muermoa beheraka ta goraka zakila.

## PAKEAN UTZI ARTE

Non bizi zen nondik zebilen
noiz egin zituen etsaiak
inoiz zoriontsua izan zen
zer pentsatuko luke gutaz
zerk ematen zion indarra
ez gehiago bueltarik eman
dakigu galtzen ditugunean
egun batzuk horrela dira
ahal dakigu gure heroien izenak
joan gaitezke haien hiletara
periodiko guztietan lehen orrian
hilotsaren ondarrak garraxika
estatuari gerra, gerra beti
pakean utzi arte
maitasuna ederrena bada
zergatik hortaz iluntzian
askatasunarekin larrutan
maitale arriskutsuegia da
hortik ibiltzeko  kontutan
ez zeok bueltarik eman behar
jazo behar dena jazo da eta
ez da inor onik denentzat
nork ez du maite askatasuna
nahiz ta leher dedin esku artean
ezin zaitut begira gehiegi da
hilotzak garraxika etengabean
estatuari gerra, gerra beti
pakean utzi arte.



## SIGARRILLOS AMARILLOS

Nik enkargatua izan nahi nuen
baina denok izatez jaiotzatik
puta seme batzuk besterik ez gara
peninsularesekin hasi nintzen oso gazte biziotan
gero hamazortzi zigarro horiek paketeko idealesekin
baina la vida sigue igual zerak esaten zuenez
ta gaur hamairu urteko edozein umek
tripi bat jaten du ta berehala klaseko kide guztiek proba dute
lehenengo mozkorra Pablo
hire gurasoen ezkontzan harrapa nuen
han monagiloa nintzelarik, hi, egin gabe hintzen oraindik
baina la vida sigue igual zerak esaten zuenez
ta gaur 22 urte, 9 hile eta egun bat geroago
hemen gaude hire eguna ospatzen, mozkorrik.
Eta gaur gabean ez banauzu ikusten
ohean egongo nauk edo ondoko komisarian.
Langabe nago, ezin diat Gasteizen paratu
Beloradora joango nauk
Beloradotik Malagara
Malagatik Zeutara
ta Zeutatik txironara
destinu petrala, hauxe duk hauxe.

## EDER BATI

Beraz eder, ez zara etorri deikunera
nahiz otoitz egin nik
hits ordea ez nago zuretzako gehiago
ez dut maitasunik.
iruditzen zitzaidan zeudela zure baitan
ase denak atzo.
Gaur gero neska gazte
eskua dut emazte
eutsiko zait zintzo.
Andere bihotz aizun
damutuko ez zaizun ni utziz, nork daki
bai orduan alferrik
eskua dut aski.
Andere begi urdin
zu joanik ere berdin
bai pozik naizela.
Nerau neronen jabe
besteen beharrik gabe
jainko bat bezala.

## HIL EZAZU AITA

Etzanda nengoela nere gelan
eta besteak diskutitzen sukaldean
eta peta bat egin nuen lo egiteko
eta ene ondamenaz ahaztutzeko
eta zeozerk esan zidan adi ametsari
eta kontuz ibili aitarekin.
aita hiltzailea izan zen
aitak ezin zuen gainditu
aitak egin behar izan zuen
zintzilik zegoen, egin behar zuen.
Kopetaraino zegoen
emazte, seme-alabez eta lanez
kotxe berri bateko diru beharrez.
Gehiegi edan zuen batean
armariotik atera zuen eskopeta
tiro bat bota anaiari
tiro bat bota emazteari
beste bi tiro arrebentzat
eta beste bat katuarentzat
eta pareko tabernan erre eta edaten
zeharo itsua hari nintzen jartzen.
Tabernatik atera eta
argi bi azkar doaz nere etxera
bata urdina polizia da ta
bestea gorria anbulantzia.
Ulertzen dut iristerakoan
bolbora usaina, odola parketan
argi urdinak aita daroa
eta gorriak, 5 hilotsak.
Bapatean despertadoreak jotzen du
ta ohartzen naiz dena ametsa izan dela
soilik  amets bat –ez da ezer gertatu-
zergatik orduan ezin dut lasaitu.
Sukaldean jarraitzen dira oihuak
bata mozkortiak besteak galduak
eta orduan bost tiro entzuten dira
eta gero soilik isiltasuna
pasiloan urrats batzuk irristatzen
aitak bere lana amaitu nahiez ote
bala bat baino gehio badu oraindik
zer egin bihot nik, ospa egitea hemendik
bolbora usaina odola parketan
hil ezazu aita hil ezazu bertan
ez baduzu hiltzen hila zaude
ez baduzu hiltzen hilko zaitu berak.



## EZ DAGO ILUSIO FALTSURIK

Emaidazu eskua ta hau gertatu zeneko lekura eramango zaitut
baina zuk nahiago dena ederki ikustea begiak itxita
zin egidazu ez dela berriz gertatuko
baina soilik ezpainak mugitzen dituzu ezta
utzidazu esaten lekukoek ez dutela beti berdin ikusten
orain ez dago ilusio faltsurik
zure itxaropenak zoroen solas pausa.
Zerraldoa bahitua izan da kalean denen aurrean
eta zu, mutu zaude orain.
Zeinek ulertuko du
nagitsuak isilik jarraituko dira
zeinek pagatuko du
inozentzi galduaren prezioa.
Atraku bat izan da eta ez da inoiz ezer errekuperatuko
eta nork daki mendekua bilatzea egokia den ala ez
ez dago ilusio faltsurik
zure itxaropenak zoroen solas pausa.







## ESAIOK

Zenbat garagar errekak pasa behar oraindik
erabaki arte.
Ehiztari erabetiak hire tiroen beldurrez
nora ezean.
Garaia duk motel, esaiok,
ez pentsa gehio, esaiok,
amodioaren aurrean egia lotsagabe esaten
ikasi behar duk.
Ta ni gau guztian nabil
zuen atzetik, lagundu nahirik
mozkortuegi nauzue
eta berdin zait non lo egin
edo norekin.
Neska horrek seguraski nahi dik
hire ondoan gau honetan egotea
beldurrik gabe hik hori esatea
hire ahotikan hori entzutea
seguraski ere desio berdinak bete nahian zebilek
ia ba! esaiok.

## GAIZKI PENTSATZEN

Hator ba neskatxa gauza bat esan nahi dinat
ez netorren lanean ala ikasten habilenean
erabat askatua sentitzen naun jai egunetan
une atsegina elkarrekin pasatzea nahi dinat soilik.
ez benetan ez nagoela mozkorrik
azkenetan ez naun drogatzen ia
agian zeraren apur bat
beharko geniken... ez pentsa gaizki.
gaizki pentsatzen hasi naiz betikolez pentsatzen
zuek beti zaudetela pentsatzen
ez joan, ez nike nik inola ere kalterik egin nahi
hator ba, une atsegina elkarrekin pasatzea
nahi dinat soilik.
ezetz ba, ez nagoela mozkorrik
azkenetan ez naun drogatzen ia
agian zeraren apur bat
beharko geniken... ez pentsa gaizki.

## BI MINUTUERO

Quai de la Gare geltokiaren gainetik
iragaten diren altzeiru bortitzak
hortzaiz mugatutzat, jo ditzazkezunean
bihotza tinkatzen zaizu hegoko itsasoraino
tren bat doala pentsatzen hasten baldin bazara
bi minutuero herrimina.
Karrika zurpail desolatuetan haizea altxatzen
abenidetako hosto gabeko arbolen puntak
makur eraziz.
Txori traketsen gisara udaberri hilean molekuletan
hilargiraino airatzeko gogua hazten hasten baldin bazara.
bi minutuero herrimina.
Larru lehortu euriak umilki bustitzen dizunean
zauri alaren zistak pixkat jabalduz.
Etxera eta laguna telefonatuko duzula bietan
zin dagizunean, gero beldurrak kurutzefikaturik
kabinan ikaratzen hasten baldin bazara.
Bi minutuero herrimina.
izaizko lau taulen artean
betiko etzana pausatzen imaginatzen zarenean
gutizia oro jaten dituzun xangre maltzurra
zeluletan barna edatzen balitzaizuke behintzat
zoriontsu izango zinatekela asmatzen
hasten baldin bazara
bi minutuero herrimina.



## AMETS PREFABRIKATUAK

Erabakitako programari jarraituz
buruko minak hil zuen andrea
jazaraidi instituzionala ta
hutsik geratu zaigu izkina.
Prefabrikatutako ametsetan
estatistikaren zeruan
borondatea itoa izan da
konsumoaren ferian.
Beldurrak batu gaitu ziutatean
funtzioa beti aurrera
biziko gara asko urrutiratuak
elektrogailuek zainduta.
Prefabrikatutako ametsetan...
behin dena nahi zuten haiek
beren buruekin konformatzen.
Ardo batzuk eta ideiak zarrapastaka
hiltzen dira jaio baino lehen
behin dena nahi zuten hoiek
dagoenarekin moldatzen
prefabrikatutako ametsetan...

## AITORMENA

Ez dira betiko garai onenak
azken finean gizaki hutsak gara.
Barearen ostean dator ekaitza
udaberri berririk ez guretzat.
Denborak aurrera etengabean
ta orain ezin eutsi izan ginena
rutinaren morroiak bihurtu gara
maitia lehen baino lehen aska gaitezan.
Ohartu gabe arrunt bilakatuta
ohartu gabe heldu gara mugara
mundua jauzi zaigu gainera
maitia lehen baino lehen aska gaitezan.
Ez dakigu non dagoen hoberena
bila dezagun beste lekuetan.
Bai, zin dagizut ez dizudala inoiz gezurrik esan eta
zaude zihur ezin izango zaitudala ahaztu inoiz
aitortzen dut izan zarela ene bizitzaren onena
baina orain, maitia lehen baino lehen aska gaitezan.

## 564

hotz amaigabe bat baino latzago
ta urteak egun baino gehio
564 ohe huts, samina zabaltzen.
Batzuen ustez ordaintzen
dagokien zigorra
maite dutenentzat berriz
askatasun haizea.
Baina hori nork ulertarazi
etxean zain bakarrik denari
564 taupada
gehiago gure bihotzean.

## ARRAULTZ BAT PINU BATEAN

Gaurko paseoan arraultz bat pinu
Batean, txorakeria bat dirudi
bainan guztiz egia da, pinua igo
arraultza begira, sargento baten
arraultza, okupazio ejerzitoaren
seilu ta guzti darama ta esaten
diot nik nere buruari
parakaidistaren batek galdu du,
hori heroia ala eroa, biak
seguraski hainbeste pinudi eta
abioitik jaurti. Jarraitzen duk
paseatzen pinu asko dago bai
bainan zoritxarrez beste arraultzik
ez, pinuz potrotaraino eta
militarrez, nola esan? Haiek
pinuak hona ekarri ta orain bere
arraultz ustelak utzi hobeto
genduke hartu ta pinukin guztiak
kanpora bialtzea hemendik baina
heroi bat izan nahi baduzu hobe
ipurdian tiro bat bota ezazu hau
orgasmoa! Eta beharbada egunen
batean Euskadi izango da libre ta
tropikala militarrik gabe,
buruaren jabe edo zergatik ez
buru gabe hobe? Beltzak eta
alferrak bihurtuko gara
kooperatibak ere itxi behar eta
leku guztiotik deskomekatuak,
libre egiteko edozein pekatuak
euskal txokoetan platerik onena
Bermeoko iguana pil-pilean
arratsalde osoa siesta batean
porrusalda, rona, wiski eta izotza
ta nekazariek landuko dituzte
kokoteroak pinuen ordez eta
arrantzaleak kontrabandora ta
piraterira pasako dira eta
bukatzeko Gernikako arbola
palmera lirain bat bihurtuko da
eh! ipurdia mugitzen bermudetan,
hau astakeria.

